

2007KO MAIATZAREN 11N GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA:Hamaika

HILABETEA: Maiatza

URTEA: Bi mila eta zazpi

HASIERAKO ORDUA:Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea

Imanol Aranburu Gutierrez

Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga

ETORRI GABEAK:

Arantxa Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2007ko martxoaren 16ko datarekin egindako Gobernu Batzordearen aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- OBRAK ESLEITZEA: Barrendain plazako zoladura konpontzeko obrak esleitzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

“AURREKARIAK

Gobernu Batzordeak 2007ko martxoaren 16an egindako ohiko bileran, aipatutako obrak lehiaketa bidez eta premiazko prozedura bidez kontratatzea erabaki zuen, lizitazio prezioa, 119.995,54 €, BEZ barne eta egikaritze epea berriz, bi hilabetekoa aurreikusiz.. Lehiaketaren deialdia, 2007ko apirilaren 2an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epea 2007ko apirilaren 2an amaitu zen. Epe horretan, denboraldirako elkarte-entresa den “CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A. eta URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.k” aurkeztu du eskaintza.

2007ko apirilaren 24an Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera, Gobernu Batzordeak ondorengo erabakia hartu du:

Lehenik. Beasaingo Barrendain plazako zoladura konpontzeko obrak denboraldirako elkarre-entresa den “CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A. eta URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.ri esleitzea, EHUN ETA HAMABI MILA EHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA BERROGEI ZENTIMOtan (112.145,40 €), BEZ barne.

Bigarren. Aurkeztutako eskaintzaren arabera, egikaritzeko epea hilabete eta erdikoa izango da, zuinketa akta jasotzen denetik kontaktzen hasita, hau da, 2007ko maiatzaren 28tik.

Hirugarren. Idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita eta hamabost eguneko epean eta kontratua sinatu aurretik, esleipendunak ondorengoak aurkeztu beharko ditu:

- 4.485,82 €ko behin betiko fidantza.
- Denboraldirako enpresaren elkarrea, eskritura publikoaren bidez formalizatzea.”

3.- ONDAREZKO ERREKLAMAZIOA. OTEGI ERAIKUNTZAK, S.L.k aurkeztutako ondarezko erreklamazioaren ebazpena.

Bildutakoek aho batez onartu dute ondorengo erabakia:

“AURREKARIAK

1.- 2006ko apirilaren 27ko datarekin, “OTEGI ERAIKUNTZAK, S.L.”ren ondarezko erantzukizunari buruzko erreklamazioa jaso zen, Beasaingo Kale Nagusiko 32 zenbakia duen eraikina altxatzeko eta igogailua jartzeko emandako hirigintza lizentzia epaileak bertan behera uzteagatik.

2.- Espedientearen izapidetzeari hasiera emanda gero eta erreklamazioa aurkeztu zuenari hainbat dokumentazio aurkezteko eskatu ondoren, 2007ko otsailaren 13an, Ebazpen Proposamena eman zen, merkatal enpresak, beren ondasun eta eskubideetan jasandako kalteengatik kalte ordaina jasotzeko eta herri bidea hartzeagatik tasak ordaintzeagatik duen eskubidea aitortuz.

3.- Ebazpen proposamena jakinarazi ondoren, hamabost eguneko epean interesatuak, berak aurkeztutako erreklamazioa berretsi egiten du eta aitortzen den kalte-ordaina nahikoa ez dela adierazten du.

4.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari txosten eskatu ondoren, 2007ko apirilaren 20ko datarekin, erakunde honek ondorengoa adierazi du: “J.M.O.U. jaunak O.E, S.L:ren ordeztutako erreklamazioarekiko

Beasaingo Udalak ondarezko erantzukizuna du, Kale Nagusiko 32 zenbakia duen eraikina altxatzeko eta igogailua jartzeko emandako hirigintza lizentzia epaileak bertan behera uzteagatik, 218.833,95 euroko diru kopuruan.”

Horren ondorioz, Gobernu Batzordeak ondorengo erabakia hartu du:

Lehenik. OTEGI ERAIKUNTZAK, S.L.ri duen eskubidea aitortzea, zerbitzu publikoen funtzionamenduagatik ondorioztatutako beren ondasun eta eskubideetan jasandako kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko. Kalte-ordainaren kopurua, honako hau da: EHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO (165.843,46 €).

Aipatutako diru-kopuruan ondorengo kontzeptu eta zenbatekoak aurreikusten dira:

- 1.- Lurzoru eraikigarri egikaritu-ezina: 58.337,16 €
- 2.- Ordenamenduz kanpo egindako obra: 16.643,00 €
- 3.- Obra ordenamendu berrira itzultzea: 8.020,00 €
- 4.- Eraikuntza-proiektu berriak: 3.830,67 €
- 5.- Maizterrei kalteordainak: 24.366,00 €
- 6.- Tresna lagungarrien kostua: 44.585,86 €
- 7.- Besteren finantzaketa-kostuen kalteordainak: 10.060,77 €

Bigarren. BERROGEITA HAMABI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGETIA BEDERATZI ZENTIMOKO (52.990,49 €) kalteordaina aitortzea herri-bidea hartzeagatiko tasak ordaintzeagatik.

Hirugarren. Erabaki honen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen berri interesatuari ematea.

4.- LOKALA EROSTEA. J. m. Iturriotz kalean lokala erostea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

“**Gaia: Lokala erostea**

AURREKARIAK

Zerbitzu publikoetarako erabiltzeko, udal ondarea handitze arren, Udalak interesa du Rosa María Elorza Azcarate andrearen lokala erostea. Lokala ondorengoa da:

Sei zenbakia duen behe oineko lokala. Sarbidea J. M. Iturriotz kaletik du. Azalera erabilgarria, ehun eta berrogeita hamabi metro eta laurogeita hamasei decímetro karratukoa da. Mugak hauek dira: Iparraldetik, finkaren lurrazpia; Hegoaldetik, kanpoko itxitura; Ekialdetik, Poligonoko bidearen lurrazpia eta Mendebaldetik, oin bereko bosgarren lokala.

Adostun den prezioa, metro karratuko 1.562,63 €koa denez, Gobernu Batzordeari dagokio erosketa burutzeko baimena ematea, 60.000 €ko gastua baino handiagoa delako.

Horren ondorioz, Hazienda Batzordeak, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Rosa María Elorza Azcarate andrearena den eta aurrekarietan deskribatu den lokala erostea, BERREHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMOKo (239.019,88 €) prezioan.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.”

5.- LOKALAREN ERABILPENA LAGATZEA. Aurtzaka taldeari Udalak Garmendia Otaola kalean duen lokalaren erabilera lagatzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

Lehenik. AURTZAKA ORAINDIK EUSKAL DANTZA TALDEA elkarteari Udalak Garmendia Otaola kalean, 7an duen lokalaren erabilera lagatzea.

Bigarren. AURTZAKA ORAINDIK EUSKAL DANTZA TALDEA elkarteari adieraztea, hitzarmena sinatzeko, 300.506,05 €ko erantzukizun zibileko aseguru formalizatu behar duela eta Udaletxean polizaren kopia entregatu behar duela.

Lokalaren erabilera baldintza hauetan lagatzen zaio AURTZAKA ORAINDIK EUSKAL DANTZA TALDEA elkarteari:

“Lehenik. Beasaingo Udalak ,”AURTZAKA ORAINDIK” EUSKAL DANTZA TALDEA elkarteari Garmendia Otaola kalean, 7an dagoen lokalaren erabilera lagatzen dio hogeita hamar urteko iraupenarekin, denbora horretan elkarte ez bada desegiten eta eragin duten baldintzak mantentzen badira.

Bigarren. Lagapena prekarioan egingo da eta dohainik.

Hirugarren. Ekipamendua, energia elektrikoa, ura, garbitasuna nahiz lokalaren mantenua, "AURTZAKA ORAINDIK" EUSKAL DANTZA TALDEA elkartearen kontura izango dira. Dena dela mantenurako obrak egin behar izan ezkeru, aldez aurretik Udalari jakinaraziko zaio.

Laugarren. "AURTZAKA ORAINDIK" EUSKAL DANTZA TALDEA elkarteak 300.506,05 €ko erantzukizun zibileko aseguru formalizatuko du eta urtero indarrean dagoen polizaren kopia konpultsatua aurkezteaz gain, urte bakoitzeko erreziboa aurkeztuko du.

Bosgarren. Eraikina Udalaren eskura pasako da eta kalte-ordain eskubiderik gabe pasa ere, premia handiagoko beharizan publikoetarako behar denean eta bertan egiten diren hobekuntzak Udalarentzat izango dira. Eskuratzerekerimendua, sei hilabeteko aurrerapenarekin egingo da eta errekeritutako eskuragarritasuna ez betetzea, atzerapen-egun bakoitzeko 30.000 €ko kanonarekin zigortua izango da eta elkartea udalarekiko ez gaitua geldituko da etorkizunean beste lagapen batzuk lortzeko.

Seigarren. . Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, ekintzak eta publizitatea ere, euskaraz izaten saiatuko dira eta horrela ez denean, euskarak lehentasuna izango du, letraren tamaina, iragarkien denbora, e.a.

Zazpigarren. "AURTZAKA ORAINDIK" EUSKAL DANTZA TALDEA, herriko toki eta bideetan publizitatea jartzeari buruzko ordenantza erregulatzaileria betetzeko konpromisoa hartzen du, baimendutako tokietatik kanpo kartelak ipintzea debekatuta baitago."

6.- GKE. GKEei dirulaguntzak esleitzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

Aurkeztutako Egitasmoak aztertu ondoren, Gizarte-Ongizate batzordeak jarraian aipatzen dena proposatzen du:

- Garapen bidean ari diren herrirentzat aipatutako finantzaketa-oinarrietan agertzen diren hautaketarako irizpideen arabera, ondorengo Gobernu Kanpoko Erakundeak laguntzea, hau da:

ERAKUNDEA ENTIDAD	PROIEKTUA/PROYECTO	PROPOSAMENA PROPUESTA
HAURRALDE Bamako-Mali	""Construcción de un Centro de Acogida, Reinserción y	15781,25

	Rehabilitación para Mujeres Víctimas de Violencia Domestica, "Jigui Só"	
MISIONES DIOCESANAS-HERRIAK ELKARLANEAN Benin	"Fruta eraldaketa eta produkzioa: Mangoa, piña, tamarindos, jengibre, tomate" "Creación de una fábrica de transformación de alimentos industrial de frutas para consumo humano"	30.426
TAUPADAK Bolivia	"Emakume indigenaren jabekuntzarako turismo garapena/Desarrollo turístico para el empoderamiento de la mujer indígena"	18.000
GURUTZE GORRIA Guatemala	"Guatemalako emakumeen aurkako indarkeraren eta bazterkeraren prebentzioa" "Prevención de la violencia y discriminación de la mujer de Guatemala"	16.816,40

ERAKUNDEA ENTIDAD	PROIEKTUA/PROYECTO	PROPOSAMENA PROPUESTA
MANOS UNIDAS Rwanda	"Ur-biltegiaren hornikuntza eta aspeka ikastetxeko instalazioen hobekuntza. Rwa" "Dotación de aljibe y mejora de las instalaciones del centro escolar Aspeka. Rwa"	3.127

Dirulaguntzaren ordainketa honako era honetan egingo da:

Subentzioaren % 100 hitzarmena sinatu eta ondorengo bi hilabeteetan ordainduko da.

Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari diru guztia, % 100, transferitu zaiolako frogagiria. Frogagiri horretan, garbi azalduko beharko du bidalitako dirua zehazki Besaingoa dela.

2. Aurrera eramandako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua dagozkion fakturak edo agiriak sartuta, ezinezkoa den kasuetan ezik, baina kasu hauetan ezintasun hori justifikatu egin beharko da.

3. Lortutako subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizunezko aitortpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo, bestela, bereziki ze laguntza jaso diren adierazten duena.

Egiaztatzeko epea.

Eskatutako agiriak, luze jota, laguntza jasotako hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.”

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.